

## Gipuzkoa eta Bizkaiako Landare Katalogoari Eraskinak, I.

Iñaki AIZPURU\*  
Pilar CATALAN\*  
Francisco GARIN\*  
José Luis TERES\*

\* Sociedad de Ciencias Aranzadi, Plaza de Zuloaga (Museo), San Sebastián - 20003.

Hain zabalak diren katalogo hauek osa ezineko lan bat direnaren oroigarritzat azaltzen ditugu hemen, orain bildu berriak ditugun, datu hauek.

### ***Quercus suber* L.**

GIPUZKOA, Hondarribia: Jaizkibel, 30TWN9299, 350 m, Garin, ARAN 1839.88

Jaizkibelgo arbola bakan hauek, Gipuzkoako mendebalean, cf. LIZAUR & SALAVERRIA (1988:628), eta Miarritzetik gora aurkitzen direnen artean kokatzen dira.

### ***Soleirolia soleirolii* (Req.) Dandy**

GIPUZKOA, Donostia, 30TWN8196, 25 m, Garin, ARAN 1838.88.

Donostiako ezponda batzuetan erruz bertakotuta agertzen zaigu Mediterraneoko uhartetako landare hau.

### ***Epilobium obscurum* Schreber**

GIPUZKOA, Oiartzun: Bianditz, 30TWN9789, 580 m, ezponda ur dariola eskistoetan, Aizpuru & Catalán, ARAN 1652.84.

Honela finkatzen dugu fitosozioologi taula batean eman genuen aipamen hau, AIZPURU & CATALAN (1987:276), Gipuzkoa osorako dagoen bakarra.

### ***Ridolfia segetum* Moris**

GIPUZKOA, Legorreta, 30TWN7070, 120 m, ezponda, Aizpuru & Catalán, ARAN 1325.88.

Mediterraneo inguruan zabaltzen den landare hau, Euskal Komunitate Autonomoan lehen aldiz aipatzen dugu, ezponda batean bertakotuta

### ***Coris monspeliensis* L.**

BIZKAIA, Gorliz, 30TWP0507, 80 m, artadi irekia, Aedo, Aizpuru & Catalán, ARAN 551.88.

Nahiz eta hegoaldean arrunta izan, Bizkaian Orduñatik bakarrik ezagutzen zen; guk legeltxorra daraman artadi batean aurkitu dugu. Mediterraneo isuri aldetik kostaruntz sartzen diren landare multzoaren beste le-kuko bat dugu hau.

***Gladiolus illyricus*** Koch

GIPUZKOA, Zestua: Aizarnazabal, 30TWN6289, 20 m, Urola ibai ertzean, Terés, ARAN 566.88.

Nahiz eta lehen ere Gipuzkoako kostaldean aipamen bat izan, GREDILLA (1913:81), ez zen, orain arte, berriro aurkitu, cf. ASEGINOLAZA & al. (1985:939).

***Orchis coriophora* L. subsp *fragrans* (Pollini) Sudre**

GIPUZKOA, Zarautz, 30TWN6893, 5 m, hondartzak, Terés, ARAN 567.88.

Euskal Herriko kantauriar isuri aldean, Donazaharre inguruan bakarrik zen ezaguna espezia, RICHTER (1880:LXIX), mediterraneo isurian ugariagoa delarik.

***Himantoglossum hircinum* (L.) Sprengel**

GIPUZKOA, Ataun: San Gregorio, 30TWN6757, 260 m, karri pendize azpian, Aizpuru & Catalán, ARAN 726.88.

Joan den mendean, WILLKOMM & LANGE (1861:164), aipatu zutenetik, ez zen espezie hau berriro aurkitu Gipuzkoan. Honelako landareen egoitza izateak, Ataun inguruko artadiak Mediterraneo aldeko florarengandik duten eragina azpimarratzen du.

## BIBLIOGRAFIA

AIZPURU, I. & CATALAN, P.

1987 Datos sobre la vegetación de fuentes y arroyos de aguas nacientes en las montañas de la cornisa vasco-cantábrica. *Lazaroa*, 7: 273-279.

ASEGINOLAZA, C., GOMEZ, D., LIZAUR, X., MONTSERRAT, G., MORANTE, G., SALAVERRIA, M.R., URIBE-ECHEBARRIA, P.M. & ALEJANDRE, J.A.

1985 *Catálogo florístico de Alava, Vizcaya y Guipúzcoa*. Vitoria.

GREDILLA, A.F.

1913 *Apuntes para la corografía botánica vasco-navarra*. Barcelona.

LIZAUR, X. & SALAVERRIA, M.R.

1988 El alcornoque, *Quercus suber* L., en el País Vasco. *Monografías del I.P.E.*, 4: 627-630. Jaca.

RICHTER, J.A.

1880 Liste des plantes recueillies de 1870 à 1874 et de 1876 à 1880, dans un rayon de 10 Km. autour de SaintJean-Pied-de-Port. *Bull. Soc. bot. Fr.*, 27: LXI-LXXI.

WILLKOMM, M. & LANGE, J.

1861 *Prodromus Flora Hispanicae*, 1. Stuttgart.